

# HORREGATIK

Goitizena: EGUZKI-IZPI

Tok-tok!

- Bai?

- Ane?

- Bai.

- Jon naiz.

- Ta zer?

- Buelta bat eman nahi?

- Ez.

- Zer ba?

- Gogorik ez.

- Ireki atea.

- Ireki zuk.

- Ezin dut, zergatik itxi duzu?

- Ez dut nik itxi.

\*\*\*

Noiznahi galdegiten diot neure buruari non dagoen justiziaren eta mendekuaren arteko desberdintasuna. Non dagoen eten-marra, muga; noiz den bata eta noiz bestea. Botereak objektibotasunaren zilegitasuna dakarren derrigor bere baitan. Edo, aitzitik, boterea harrokeriaren eta handinahiaren sinonimo den. Ala tartekorik existitzen den.

“Argi dago ba, non dagoen muga. Ez da galdera zaila”, esan zidan behin lagun batek, orain neure buruari galdetzen diodana itaundu nionean.

Benetan al da hain sinplea?

*Justizia: iz. 1. Zuzentasuna. 2. Aro jakin batean komunitate batek oinarritzat hartzen dituen eta guztien ongizatea lortzeko aplikatzen diren printzipioen multzoa.*

*Mendekua: iz. Pertsona bati, hark egin duen kaltearen ordainetan egiten zaion kaltea.*

Printzipioak eta kaltea, ongizatea eta ordaina.

Printzipioak ordainetan eta ongizatearen kaltea.

Justiziak, norbait zigortzean, ez al dio hark egin duen kaltearen ordainetan kalte egiten, hain justu?

Izan liteke, agian, “Justizia” hitza sortu dugula Mendekuaz lotsatzen garelako?

Horren azpian zerbait dago... eta ez dakit zer den.

- Ezinegona sortzen al dizu horrek?

- Bai.

\*\*\*

Egiak ez du zertan polita izan.

Egiak, askotan, min ematen du.

Egia krudela da.

Egiak beti du gezur bat ezkutuan.

Egia ez da inoiz gardena, ezta transluzidoa ere.

Egia ez da egia.

Egia aurkitzea ezinezkoa da.

Egia babes bat da.

\*\*\*

- Panpina hautsien istorio guztiak berdinak iruditzen zaizkit.

- Zer esan nahi duzu horrekin?

- Ilusio handiz erosten direla, asko jolasten dela haiekin, baina beti bukatzen dutela modu berean: logelaren izkinan botata, lurrean eserita, haurrak nerabe nola bihurtzen diren ikusten.

- Joe, neska, ez zaitut inoiz ulertzen. Zergatik ez dugu mutil horretaz hitz egiten? Guri begira dagoela ohatu al zara? Ondo al dut makillajea?

\*\*\*

- Zure lan guztiak kaka-nahaste bat dira.

- Badakit.

\*\*\*

Euri hotzak lur beroaren aurka jotzen duenean sortzen duen usain txar baina kuttun hori, Donostiako Boulevard-a.

Gizarte futurista honen soldaduak doaz martxan. “Bat, bi; bat, bi.” Jendetza masa bat mugitzen da alde batetik bestera. “Bat, bi; bat, bi”. Zoriontasuna haien aurpegietan islatzen saiatzen dira, erraietan duten lohi guztiari eutsi nahian. “Bat, bi; bat, bi.” Zoriontsu ez banaiz, ez naiz normala.

“Bat,bi; bat bi.”

\*\*\*

Argi iheskorra liburuaren orriekin harrapatu nahian dabil klasean galduta dagoen ikaslea. Irakaslearen hitz sarkorrek zakar eserita dagoen gorputz ahulean egiten dizkiote zuloak.

*“Vittorio Emanuele II.a Italiako Erresumako lehen errege izan zen koroatua, 1861ean. Baina 1970ean Erromako hiria okupatu arte...”*

Gelako leihotik haizearekin dantzan dabiltzan zuhaitzak ikusten ditu; hostoak askatuz, beren gorputzak nola biluzten dituzten zelatatzen. Udazkenaren aire grisa kristalak zeharkatzen sentitzen du, eta bere sorbaldak laztantzen dituela konturatu da.

Aurrera begiratzean beste 23 buru ikusi ditu ilaretan banatuak, geldirik, noizbehinka eskuak idazteko mugitzen dituztela. Monotoniaren kolore okre zaharkituak are gehiago nekatu du eta sorbaldetatik aireak ihes egin diola nabaritu du, pisu zikin bati lekua uzteko.

Leihoetatik harago begiratzen jarraitzea erabaki du. Airearen laztanak estimatzen ditu.

\*\*\*

Eta munduaren jabe egin ginen  
inongo eskubiderik gabe,  
  
eskubiderik gabe...

Eta ama-lurrari min emanaz  
boteretsu sentitu ginen,

boteretsu...

Eta animaliak garela ukatuz,  
unibertsoaren koroa geure buruetan jarri genuen.

Noren baimenarekin? Noren omenez?

Albo-kalteek alboko izaten jarraituko dute  
inork arazoaren sustriak lurpetik ateratzen ez dituen bitartean.

Aihergatasunaren zuhaitzak  
zutik iraunen du  
betiko.

Aihergatasunaren zuhaitzak  
itzala egingo digu.

Eta haren itzalak,  
hezetasun zorrotzengan,  
hil egingo gaitu.

\*\*\*

- Ama, zakilek botere magikoak al dituzte?

- Baina zer diozu, Ane?

- Ea zakilek botere magikoak dituzten!

\*\*\*

*Urtarrilak 12, osteguna*

*Kaixo, alboan ez zaitudan hori*

*Norbaitekin hitz egitekotan, inorekin ez egitea erabaki dut azkenean. Barruan nuena are barrurago sartu eta kanpoan nuena neure sakonera iruntziratu baitut. Agian ez da onena... Soberan dakit ez dela onena. Horregatik idazten dizut zuri, Inor ez zaren horri, zuk, behintzat, apika, konprenituko nauzulakoan.*

*Badakit, ziurrenik pertsona batek erakutsiko lidakeen errukia paper batean bilatzen ari naizela. Baina uste dut haren beldur naizela, norbaitengan bilatzeko gai ez naizela. Ala mesedez eskatzeko, zeinek daki.*

*Agian noizbait aurkituko dut nire salbazioa, erraietan nahaspilatu egiten zaizkidan ideia, jakin-min eta zalantza guztiak leuntzeko modua ikasiko dut. Agian.*

*Jada ez dakit non eta nola deskubrituko dudan nire irtenbidea. Nire galbidea bihurtuko ote da?*

*Ba al dakizu zuk hori?*

\*\*\*

Arpa hotsa entzuten da beheko bizilagunaren etxetik. Nota motelak, geldoak. Ederrak bezain gozoak, azal leunenaren fereken modukoak. Biluzik nago etxean, lurrean etzanda. Hotza nabaritzen dut gorputz osoan zehar. Botata jarraitzen dudala dantzan hasi naiz, gorputza alde batera arrastaka eramanez, gero beste aldera. Buelta erdia eman dut eta besoak zabaldu ditut, bularretan nabaritu dut oraingoan hozkirria.

Beste bizilagun batzuen oihuek berreskuratu dute nire kontzientzia eta mundu honetara ekarri naute bueltan.

Dorre batean biziko ez banintz...

Belar hezearen freskotasunean labainduko nuke nire gorputza egunero, ihintzak nire azalari "egun on" esaten sentituz.

Baina gaurkoan gezurretako zurezko lurrean nago etzanda. Zoritzarrez.

\*\*\*

- Eta zuk ba al diozu heriotzari beldurrik?

- Beldurrak usatzen ere ikasi egiten da.

\*\*\*

Ni, Ane, materia naiz. Harriak bezala, zuhaitzak bezala, burdina bezala... zu bezala. Eta munduan bizi naiz, materia esfera handi batean, zebrak bezala, mitxoletak bezala, arrainak bezala... zu bezala.

Eta materia izanda, bizitzaren zikloan parte hartzen dut: behin jaio nintzen, bizi naiz eta, noizbait, hil egingo naiz. Horrela, materia materiaz hornituko dut. Biziari jarraitasuna emango diot. Bizia bizirik mantenduko dut.

Nire heriotza, ordea, norik aukeratuko duen enura dut. Ez dakit, bada, biziak berak egingo duen, zori kontua izango den ala patuak idatzitako moduan gertatuko den. Alta bada, ez ditut gustuko aukera horiek. Ezin al dut behingoz nik erabaki?

Ugaltzea baldin bada gure funtzioa materia sistema honetan, arrazoimenaren erabilgarritasuna zalantzan jartzen dut. Ez dakit, bada, azken finean, gauzei zentzua bilatzeak denak zentzurik ez duela ulertzera eramaten ez ote gaituen.

Izaki izateak ez badu ezertarako balio, soilik espezie bezala bizirauteko baldin bagaude, zergatik jarraitzen dut nik hemen?

Horregatik:

*Banoa.*

*Banoa inora ez eramango nauen jauzi eternal honetan.*

*Agur, maite dudan hori.*

*Agur, gorroto dudan hori.*

*Inoiz arte, Itxaropen.*